

II. IGANDEA URTEAN ZEHAR (A)

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
zeure esku dauzkazu zeru-lurrak;
entzun bihotz onez zeure herriaren eskariak
eta eman zeure bakea gure egunotan.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 49, 3. 5-6

*Atzerrien argi egiten zaitut,
nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin.*

Isaias Profetaren liburutik

Jaunak honela esan zidan:
«Zu, Israel, nire morroia zara,
zuregan dut gorespina».
Orain honela mintzo da Jauna,
amaren sabeletik
bere zerbitzurako deitu ninduen;
Jakob Beregana bihurtzeko
eta Israel biltzeko;
izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak,
eta Jainkoa izan zen nire indar.
Eta hau esan dit:
«Oso gutxi da zu nire zerbitzari izatea,
Jakoben leinuak eraikitzeko
eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko.
Atzerrien argi egiten zaitut,
nire salbamena
lurraren azken mugaraino irits dadin».

ERANTZUN SALMOA: Sal 39, 2 eta 4ab. 7-8a. 8b-10

R/. **Hemen nauzu,Jauna,
zure nahia egin dezadan.**

Itxaron dut Jaunarengan, itxaron,
makurtu zait eta nire oihua badu entzun.
Ahoan eresi berri bat ipini dit,
gure Jainkoarentzat gorespen. R/.

Opari eta eskaintzarik ez duzu nahi izan,
baina belarriak ireki dizkidazu.
erreopari eta hoben oparirik ez duzu eskatu.
eta orduan esan dut nik: «Hemen nauzu». R/.

Liburuan nitaz hau dago idatzia:
egin dezadala zure nahia.
Ene Jainko, gogozko zait hori,
eta bihotz-mamian daukat zure legea.
Iragarri dut batzar nagusian zure salbamena,
ezpainik ez dut itxi, badakizu, Jauna. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Kor 1, 1-3

*Grazia zuei eta bakea
gure Aita Jaungoikoarengandik eta Jesu Kristo Jaunarengandik.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei
egindako lehenengo epistolaren hasiera

Paulok, Jaungoikoak hala nahi eta, Jesu Kristoren apostolu izateko deituak, eta Sostenes anaiak: Korinton dagoen Jaungoikoaren elizari, Kristo Jaunarengan santutuei, herri santu izatera deituei, Jesu Kristo gure Jaunaren –gure eta haien Jaunaren– izena toki guztietan aitortzen duten guztiei: grazia zuei eta bakea gure Aita Jaungoikoarengandik eta Jesu Kristo Jaunarengandik.

EBANJELIOA: Jn 1, 29-34

Aleluia: Jn 1, 14ab. 12ab

R/. Aleluia.
V/. Hitza haragi egin zen,
eta gure artean jarri zuen bizilekua.
Onartu zuten guztiei,
Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea
eman zien. R/.

Hona hemen, ...

hona munduko bekatua kentzen duena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Aldi hartan, ikusi zuen Joanek Jesus beregana etortzen, eta esan zuen:

«Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa,
hona munduko bekatua kentzen duena.

Honentzat esan nuen nik:

"Nire ondoren dator
niri aurrea hartu didana,
ni baino lehenagotik bainzen".

Nik ez nuen ezagutzen; baina Bera Israeli ager zekion etorri nintzen ni, urez bataiatzen».

Eta aitormen hau egin zuen Joanek:

«Espiritua ikusi dut
usoa bezala zerutik jaisten,
eta Haren gainean gelditzen.

Nik ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak Berak esan zidan: "Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, Hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena". Bai, nik ikusi dut, eta aitortu ere aitortzen dut: Hau dela Jaungoikoaren Semea».

Oparigaien gainekoa

Egizu, Jauna,
zintzo hurbil gaitzela sakramentu honetara;
gure erospena egiten baita
opari hau oroigarri ospatzen dugun bakoitzean.
Jeskristo.

Jaunartze ondorengoa

Isuriezaguzu, Jauna, zeure maitasun espiritua,
zeruko ogi bat-beraz janaritu gaituzunok
zeure maitasunean bat egin gaitzazun.
Jesu Kristo.